

JOSEBA OTANO ARRANO ELKARTEKO TXAPELKETAKO GARAILE, HIRUGARREN ALDIZ.

Arrano Elkarteko IX. Xake Txapelketa 2006.go irailaren 4tik 8ra jolastu zen. Beti bezala, xakelari euskaldunei eskainitako Txapelketa izan zen. Hau da, euskaraz hitz egiten dakiten jokalariei.

Edizio honetan, 21 jokalarik eman zuten izena (iaz baino 2 gutxiago). Dena den, 3 jokalarik ez zuten partida bat ere jolastu, izena emanda zuten arren. Alde horretatik, parte hartzean beherakadatxoa nabaritu zuen Txapelketak.

Parte hartzaileei dagokienez, Iñigo Elía, Paz de Zigandako jokalaria, ageri zen faborito nagusi moduan, ELO gehien zuena baitzen.

Mikel Gureako jokalaria bat, Zaldi Beltzako 3 jokalaria, Gazte Berriak taldeko jokalaria bat, Amaiur taldeko jokalaria bat, Berriozarko 2 jokalaria, Orvinako bat eta Arrano Elkarteko 8 jokalaria izan ziren gainontzeko jokalaria (Arranoko beste hiru berehala kanporatuak izan ziren).

Lau orduko bost partidetan aritu behar izan zuten parte hartzaileek. Bigarren ihardunaldian Txapelketa argitzen hasi zen. Javier Sevillak eta Iñaki Arrizibitak berdinketa egin zuten. Mikel Torresek eta Iñigo Elíak ere bai. Emaizta horiek buruan bakarrik utzi zuten Joseba Otano.

Hirugarren ihardunaldian, lehenengo bi zerrendaburuak aurrez aurre izan ziren. Joseba Otanok, beltzekin jolastu arren, garaipena lortu zuen. Javier Sevillak, beltzekin, berdinketa besterik ez zuen lortu Mikel Razkinen aurrean. Horrela, Iñaki Arrizibita eta Mikel Torres bakarrik geratu ziren liderrarengandik puntu erdira.

Laugarren ihardunaldian, Joseba Otanok Iñaki Arrizibita gainditu zuen eta bosgarrenean Mikel Torres. Beraz, 5 partidak irabazita eskuratu zuen Txapelketa.

Sailkapenean, ondoren, Mikel Torresek, Iñaki Arrizibitak, Iñigo Elíak eta Manex Insaustik orden horretan bukatu zuten Txapelketa, 3'5 puntuz.

Manex Insaustik hirugarren aldiz irabazi zuen 14 urtez azpiko lehenengo jokalariaientzat eskainitako trofeoa. Dena den, Javier Sevillaren iharduna ere azpimarragarria izan zen. Buruan ibili zen, baina Iñigo Eliaren aurka azkeneko partida galdu ondoren, 2'5 puntuz, bederatzigarren postura atzera egin zuen sailkapenean.

Joseba Otanok lortu du Josetxo Labairuren marka berdintzea: Hiruna Txapelketa. Azkeneko urteetan azken honek ez du parte hartzen eta errazagoa da besteentzat, zalantzarik ez horretan.

Hurrengo urtean, X. edizioa beteko du Txapelketak eta ordurako lehia bizia iragar daiteke.

Iruñean, 2006.go irailaren 16an.

ARRANO ELKARTEA XAKE TALDEA.

Ordezkarria: JOSEBA OTANO VILLANUEVA. Euskal Naziotasunaren Aitormena: S6973074A. Helbidea: Antsoingo errepidea, 13 – 3 ezker (Iruñea, Nafarroa). Posta Kodea: 31.014.